

ASTIALDIA > EUSKAL HERRIKO TXOKOAK



El Bocal ingenieritza lan handia da. INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

El Bocal, Nafarroa horian ur uharte bat

Fontellas herrian, Tuteratik zazpi kilometrora daude El Bocaleko presak. Hortik abiatzen da Ebro erdiko arroko soroak eta Zaragoza urez hornitzen dituen Kanal Inperiala.

IRENE ARRIZURIETA
Fontellas

Ebroko El Bocal Fontellas herriko (Nafarroa) mugan dago. Bertatik abiatzen da Aragoiko (Espainia) Kanal Inperiala. Ebroko El Bocal ingenieritza herri lan handia da. Egia bihurtu zen ametsa izan zen. 1528an hasi ziren eraikitzen, Karlos V.a erregeak aginduta, Nafarroako eta Aragoiko Ebro ibarreko lur lehorrak ureztatzeke. Hasieran, asmoa Ebroko urak Zaragozaraino (Espainia) eramatea zen. Baina asmo hura erdibidean gelditu zen, eta Kanal Inperialak zeraman ura Nafarroako Erriberako hainbat herritako lurrak ureztatzeke erabili zen, batik bat. Lehen El Bocal eraiki



Uhatetako etxea joan den urtean berritu zuten. INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

eta bi mende geroago, Ramon Pignatelli, Zaragozako elizaren kalonjeak Zaragozaraino ura eramateko proiektua berrartu zuen eta Karlos III.a erregearen lagun-

tzarekin lortu zuen amestutako obra gauzatzea.

Horretarako, XVI. mendeko presa zaharra baino gorago beste presa berri bat eta uhate handieta-

ko etxe bat eraiki ziren. Horrela, ura Zaragozaraino erraz irits zitekeen.

Guztira, Kanal Inperialak 108 kilometroko ibilbidea du, Fonte-

llasko El Bocaletik Zaragozako sakanera doana. Herri lana 1790. urtean bukatu zen. Ebro arroilako herrien garapena ekarri zuen kanalak. Nekazariak labore berriak sartu zituzten, eta hiri eta industria horniketarako ur nahi-ko zuten inguruko herriek. Gainera, kanala ezinbestekoa izan da eta da Zaragoza hiria rentzat, edateko ura bertatik hartzen baitu.

EL BOCALEKO AUZOAK EDO HERRIXKA. Fontellasko herriaren hego-ekialdera dago El Bocaleko herrixka, Ebro ibaiaren eta Kanal Inperialaren artean. Hara iristeko A-68 autopista hartu behar da eta Tuterako irteeran atera. Ondoren 5.281 erre-pide nazionala hartu behar da ezkerretara.

Behin Erriberako Fontellas herrira iritsita, El Bocalera ailegatzeko aurrera jarraitu behar da kilometro eta erdieska. Karlos V.aren jauregiak eta Uhatetako etxekeo presak, lorategiak eta langileak bizi ziren herrixkak osatzen dute El Bocaleko auzoa. Karlos V.aren jauregia XVI. mendean eraiki zuten, lehen presarekin batera, baina XIX. mendean berritu zen, eta aldaketa asko egin zizkioten. XVIII. mendeko Uhatetako etxea,